



HAURRESKOLAK PARTZUERGOAN

ORDU ESTRAK

Kaixo, lankide,

Haurreskolak Partzuegoaren gerentziaren kudeaketa zakarraren baitan, enpresak ez ditu ordezkapenak betetzen eta, ondorioz, hezitzaileoi ordu estrak sartzera behartzen ari da Pertsonal Zerbitzua (telefonoz, gainera). Egoera deseroso asko sorrarazi ditu enpresak horrela, hezitzaileen bizitza pertsonalean eragin zuzen-zuzenak eragin dituelarik. Jakinarazi nahi dizuegu enpresak ezin zaituztela ordu estrak sartzera behartu, beraz, ezetz esatea zuen eskubidea da.

Agindu honen aurrean enpresak hezitzaileen ezetza jasoko balu, behar horiek ordezkatzeko hasi beharko litzateke familiei zerbitzua ematen jarraitzeko. Ordu estrak sartzen jarraitzen badugu, enpresaren dinamika aldrebesetik ateratzea oso zaila izango da.

Badakigu enpresaren deia jasotzea oso deserosoa dela eta presio handia sentitzen duzuela hezitzaileek. Eskaera horiek IDATZIZ bidaltzea eskatu, erregistratuta geratzeko, gutxienez.

Esan nahi dizuegu **STEILAS** sindikatuarekin kontaktuan jar zaitezketela edozein zalantzaren aurrean, eta gure esku dagoen laguntza guztia eskainiko dizuegula enpresaren presio horien aurrean.

Enpresaren kudeaketa zakar honi guztion artean egin behar diogu aurre.

ORDU ESTRARIK EZ! ORDEZKAPENAK LEHEN EGUNETIK!

Euskal Herrian, 2020ko urriaren 8an.



www.steilas.eus

Araba ☎ 945 14 11 04
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus